# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA-SAILA

**110**

Urtarrilaren 5/1982 DEKRETOA, Euskeraren Aholu-Batzordea sortaraziz.

Euskal Herriko Autonomia-Estatutoak zera dio: Autonomia-Elkarte osorako Erakundeek, Euskal Herriaren gizarte eta hizkuntzaren aldeetatikako era-batasunik eza kontutan izanik, bi hizkuntza ofizialak erabili ahal izatea bermatuko du, hoien ofizialtasuna araupetuz, eta hoiekiko ezagutza bermatzeko beharrezko izan daitezen neurri eta eskuarteak jarri eta araupetzen dituztela.

Estatutoaren agindu hori horretarako erabakien bidez behar bezala osabideratzearen kaltetan gabe, hizkuntzaren alorrean barne-egokitasunezko politika bat egiteratzeko bide izan daitezen baliapideak erabiltzea beharrezko gertatzen da.

Euskerak gure gizartean Euskal Herriko hizkuntza ofizial eta berenezkoa denez dagokion tokia iritsi dezan, Jaurlaritzaren euskerari buruzko guztietango ekintzapideak behar bezala egitamutu eta erakidetu behar dira, horretarako ihardutzesailak sortaraziz.

Hori dela eta, Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailburuaren saloz eta Jaurlaritzak 1982garreneko Urtarrilaren hamaikan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

### ERABAKITZEN DUT

*Lehenengo Atala.*—Euskeraren Aholku-Batzordea sortarazten da, ihardutze egituran Jaurlaritzako Lehendakaritzaren menpeko, Jaurlaritzaren euskerari buruzkoetarako ekintzapideen egitamuketa eta antolakidetarako Aholku-Sail gisa.

*2garren Atala.*—Honako hauek izango ditu Euskeraren Aholku-Batzordeak bere ihardutze-sail:

— Batzorde Osoa

— Etengabeango Batzordeatala.

— Berarizko Batzordeatalak.

*3garren Atala.*—Honako hauek izango dira Aholku-Batzorde Osoko kideale:

a) Lehendakari, Jaurlaritzako Lehendakaria, komenigarri deritzanean bere ordezkotza Jaurlaritzako Sailbururen bati eman diezaiokela.

b) Kultura-Sailburuaren saloz izendatutako batzordekide bat.

c) Hizkuntza-Sailburuaren saloz izendatutako batzordekide bat.

d) Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailburuaren saloz inzendatutako batzordekide bat.

e) Euskaltzaindiaren saloz izendatutako batzordekide bat.

f) Euskal Herriko Unibersitateko Erretorearen saloz izendatutako batzordekide bat.

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA

**110**

DECRETO 5/1982, de 11 de Enero, por el que se crea el Consejo Asesor del Euskara.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, establece que las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, teniendo en cuenta la diversidad socio-lingüística del País Vasco, garantizarán el uso de las dos lenguas oficiales regulando su carácter oficial y, arbitrarán y regularán las medidas y medios necesarios para asegurar su conocimiento.

Sin perjuicio de que se le de el debido desarrollo a este mandato estatutario mediante las correspondientes disposiciones, es preciso articular aquellos medios que sirvan de instrumentos eficaces, que permitan llevar a cabo una política coherente en materia lingüística.

Con el fin de que el euskera alcance en nuestra sociedad el lugar que le corresponde como lengua oficial y propia del Pueblo Vasco, es preciso planificar y coordinar debidamente la actividad gubernamental en todo lo referente al euskara, creando los órganos correspondientes a tal efecto.

En su virtud, a propuesta del Consejero Secretario de la Presidencia y previa deliberación del Gobierno en su sesión del día once de Enero de 1982,

### DISPONGO

*Artículo primero.*—Se crea el Consejo Asesor del Euskara, dependiendo orgánicamente de la Presidencia del Gobierno como Organo Consultivo de planificación y coordinación de la actividad del Gobierno, en lo referente al euskara.

*Artículo 2.º*—Los órganos de funcionamiento del Consejo Asesor del Euskara serán los siguientes:

— El Pleno.

— Comisión Permanente.

— Comisiones Especiales.

*Artículo 3.º*—La composición del Pleno del Consejo Asesor será la siguiente:

a) El Presidente: El Lehendakari, pudiendo éste delegar la Presidencia en un Consejero del Gobierno, cuando estime convenientemente.

b) Un vocal, nombrado a propuesta del Consejero de Cultura.

c) Un vocal, nombrado a propuesta del Consejero de Educación.

d) Un vocal, nombrado a propuesta del Consejero Secretario de la Presidencia.

e) Un vocal, nombrado a propuesta de Euskaltzaindia.

f) Un vocal, nombrado a propuesta del Rector de la Universidad del País Vasco.

g) Deustoko Unibersitateko Erretorearen saloz izendatutako batzordekide bat.

h) Euskerari buruzkoetan itzala aitortzen zaizkienen artetik izendatutako hamabi batzordekide.

Batzorde Osokoen artetik hautatutako batzordekide batek egingo du Batzar-agirietarako Idazkaritza.

*4garren Atala.*—Aholku-Batzordekideak Lehendakariaren Dekretoz izendatuko dira.

*5garren Atala.*—1. Hirugarren Atalaren e), f), g) eta h) zatietan aipatzen diren batzordekideek lau urte iraungo dute kargu horretan.

2. Aurreko zatiak dion aldia igaro izanagatik tokia utzitakoak beste kargualdi berritarako izendatu ahal izango dira.

*6garren Atala.*—1. Bi urtez behin, hirugarren Atalaren h) zatiaren gai diren batzordekideen erdiak aldatuko dira.

2. Batzordekide hoietakoren bat lau urteko aldia bukatu gabeko beste baten ordez izendatutakoa baledi, haren ordezkotza egin zueneko batzordekideari legokiokenean utziko du bere tokia.

*7garren Atala.*—Arduralaritzabide-Legearen 13garren Atalean ohartemandakoaren kaltetan gabe, Aholku-Batzordeak Idazkari Nagusi bat izango du.

*8garren Atala.*—Honako hauek izango ditu Aholku-Batzorde Osoak bere egiteko:

a) Jaurlaritzari euskerari buruzko ekintzarako orotariko Egitamuaren saloa egitea.

b) Aurrera eraman dakizkion Egitamu horren egiterapenaren alderdiei buruz bere erizpena ematea.

c) Jaurlaritzari edo dagokien Sailei, euskeraren erabilpenari buruzko aginduak ahalik eta ondoen bete daitezeneko neurri egokiak har ditzatenaren saloak egitea.

d) Euskera zuzpertzeko lanean ari diren erakundeen ekintzak erakidetzeko artezpideen saloak egitea.

e) 10garren Atalaren e) zatiak dion urteoroko argipidetxostena ontzat ematea.

f) Aurrera ekarri dakizkion arazo guztietan Jaurlaritzari bere aholkuak ematea.

g) Legeek edo Araudiek eman diezaioten beste ezein egiteko.

*9garren Atala.*—Honako hauek dagozkie Lehendakariari eta horrek bere ordezkotza emandakoari:

a) Batzorde Osoaren bilkuretarako deiak egitea.

b) Legeak bete eta azterpen-eztabaidaketak eraz egin daitezeneko arta.

c) Jaurlaritzari, Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailburuaren bidez, egin ditzan erizpen edo argipidetxostenak bidaltzea.

d) Ezein norbanako edo norbanako nahiz herri-jabetzapeko erakunderen aurreango Aholku-Batzordearen ordezkotza.

e) Legeek, Araudiek eta Aholku-Batzordearen erabakiek eman diezazkioten gainontzeko agintepideak egiteratzea.

g) Un vocal, nombrado a propuesta del Rector de la Universidad de Deusto.

h) Doce vocales, nombrados entre personalidades de reconocido prestigio en lo referente al euskara.

Actuará como Secretario de Actas, un vocal elegido entre los miembros por el Pleno.

*Artículo 4.º*—Los vocales del Consejo Asesor, serán nombrados mediante Decreto del Lehendakari.

*Artículo 5.º*—1. La duración del cargo de los vocales a que se refieren los apartados e), f), g) y h) del artículo tercero será de cuatro años.

2. Los cesantes por el transcurso del tiempo a que se refiere el apartado anterior, podrán ser nombrados para nuevos períodos.

*Artículo 6.º*—1. Cada dos años, se procederá a la sustitución de la mitad de los vocales a que se refiere el apartado h) del artículo tercero.

2. Cuando alguno de estos vocales, hubiera sido nombrado en sustitución de otro que no agotó el tiempo de cuatro años, cesará cuando le hubiere correspondido al vocal que sustituyó.

*Artículo 7.º*—El Consejo Asesor dispondrá, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 13 de la Ley de Procedimiento Administrativo, de un Secretario General.

*Artículo 8.º*—Serán funciones del Pleno del Consejo Asesor:

a) Proponer al Gobierno el Plan General de acción en lo referente al euskara.

b) Informar sobre aquellos aspectos de la ejecución del Plan, que sean sometidos a su consideración.

c) Proponer al Gobierno o a los Departamentos correspondientes, la adopción de medidas adecuadas para la mejor aplicación de las disposiciones referentes al uso del euskara.

d) Proponer las directrices para coordinar las actividades de entidades dedicadas al fomento del euskara.

e) Aprobar el informe anual a que se refiere el apartado e) del artículo 10.

f) Asesorar al Gobierno, en aquellas materias que le sean sometidas a consideración.

g) Cualquier otra función que le atribuyan las Leyes o los Reglamentos.

*Artículo 9.º*—Corresponde al Presidente o a la persona a quien delegue:

a) Convocar el Pleno.

b) Asegurar el cumplimiento de las Leyes y la regularidad de las deliberaciones.

c) Remitir al Gobierno a través del Consejero Secretario de la Presidencia, los dictámenes o informes que elabore.

d) Representar al Consejo, ante toda clase de personas o entidades públicas y privadas.

e) Ejercer las demás facultades que le confieran las Leyes, Reglamentos y acuerdos del Consejo Asesor.

*10garren Atala.*—Honako hauek dagozkio Idazkari Nagusiari:

a) Lehendakaria bertan ez dagoenean Etengabeango Batzordeatalaren eta Berarizko Batzordeatalen bilkuretan buru izatea.

b) Batzordeatal berezien ekintzapideak erakidetzea.

c) Lehendakaritzaren artezkaritzapean, Aholku-Batzordearen eta Batzordeatalen erabakiak bete daitezenaren ardura.

d) Ohizko arazoei bere bideak eginaraztea.

e) Legeek, Araudiek edo Aholku-Batzordeak eta Batzordeatalek batzar-agirian eraso ondorengo erabakiz eman diezazkioten gainontzeko egitekoak.

*11garren Atala.*—1. Honako hauek izango dira Etengabeango Batzordeataleko kideak:

a) Idazkari Nagusia.

b) Hezkuntza-Sailburuaren saloz izendatutako batzordekidea.

c) Kultura-Sailburuaren saloz izendatutako batzordekidea.

d) Batzorde Osoak bertakoetatik izendatutako bi batzordekide.

e) Batzorde Osoko batzar-agirietarako Idazkaria, aurrean esandako hoietakoren bat ez bada.

2. Batzar-agirietarako Idazkaria Batzorde Osokoa bera izango da, Etengabeango Batzordeatalak besterik erabaki ezik.

*12garren Atala.*—Honako hauek izango ditu Etengabeango Batzordeatalak bere egiteko:

a) Jaurlaritzako Sail bereziek euskerari buruzkoetan izan ditzaten ihardutze-egitamuak aztertu, eta egoki deritzen aldaketen buzipenak egitea.

b) Sail berezien Egitamu hoiek gertatzeko aholkuak eman eta hoiek elkarri egokitzea, eta hoien egiterapenarekiko arta.

c) Jaurlaritzaren Orotariko Ihardutze-Egitamuaren egitasmotzakoa gertatzea, Batzorde Osoari aurkezteko.

d) Euskalki bereziak eta baturatutako euskera Arduralaritza-Sail berezietan erabiltzeari buruzkoetan argipideak ematea, hala behar izanez gero Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren.

e) Duten garrantzia dela eta Batzorde Osora eraman behar diren arazoak zeintzuk diren erabakitzea.

f) Jaurlaritzaren euskerarekiko Orotariko Ihardutze-Egitamuari buruz urteoro argipide-txosten bat egitea, eta bai Batzorde Osoaren, Idazkaritza Nagusiaren eta Aholku-Batzordeko gainontzeko Batzordeatalen ekintzapideei buruzkoa ere.

g) Legeek, Araudiek nahiz Aholku-Batzorde Osoak eskuratu diezaion beste ezein arazo.

*13garren Atala.*—1. Gai bereziei buruzko lanak edo argipide-txostenak egiteko Batzordeatal Bereziak eratu ahal izango dira, Aholku-Batzorde Osoak horretarako hartutako erabakiz.

2. Batzorde Bereziek etengabe ihardutzekoak nahiz bestelakoak izan ahal izango dute eta, bere ihardunean, eratze-erabakian jarritako zernolakoei atxikiko zaizkie.

*Artículo 10.*—Corresponde al Secretario General:

a) Presidir la reunión de la Comisión Permanente o de las Comisiones Especiales cuando no asista el Presidente.

b) Coordinar las actividades de las distintas Comisiones.

c) Cuidar, bajo la dirección del Presidente, del buen fin de los acuerdos del Consejo Asesor y sus Comisiones.

d) Despachar los asuntos de trámite.

e) Las demás funciones que le atribuyan las Leyes, Reglamentos o el Consejo Asesor y las distintas Comisiones previo acuerdo de las mismas hecho constar en Acta.

*Artículo 11.*—1. Formarán parte de la Comisión Permanente:

a) El Secretario General.

b) El vocal nombrado a propuesta del Consejero de Educación.

c) El vocal nombrado a propuesta del Consejero de Cultura.

d) Dos vocales, designados por el Pleno entre sus miembros.

e) El Secretario de Actas del Pleno si no lo fuese alguno de los anteriores.

2. Actuará como Secretario de Actas el que lo sea del Pleno a no ser que la Comisión Permanente decidiera lo contrario.

*Artículo 12.*—Serán funciones de la Comisión Permanente:

a) Analizar los Planes de Gestión de los distintos Departamentos del Gobierno en lo referente al Euskara y sugerir las modificaciones que estime convenientes.

b) Asesorar y coordinar a los distintos Departamentos en la elaboración de los mencionados Planes, así como realizar su seguimiento.

c) Elaborar el anteproyecto de Plan de Gestión global del Gobierno para someterlo a la consideración del Pleno.

d) Informar, previa consulta con Euskaltzaindia en su caso, sobre puntos relacionados con la utilización de los distintos dialectos y del euskera unificado en los distintos ámbitos de la Administración.

e) Decidir aquellos asuntos, que por trascendencia han de ser sometidos al Pleno.

f) Elaborar informe anual sobre el Plan de Gestión Global del Gobierno en lo referente al euskara, así como de las actividades del Pleno, Secretaría Ejecutiva y el resto de las Comisiones del Consejo Asesor.

g) Cualquier otro asunto que le sea encomendado por las Leyes, Reglamentos o por el Pleno del Consejo Asesor.

*Artículo 13.*—1. Para la realización de los trabajos o informes sobre materias concretas, podrán crearse Comisiones Especiales, mediante acuerdo en tal sentido del Pleno del Consejo Asesor.

2. Las Comisiones Especiales, podrán ser permanentes o no y se atendrán en su funcionamiento a los términos del acuerdo de creación.

3. Idazkari Nagusia, nahitaezko arauz, Batzordeatal Berezi guztietako kide izango da.

4. Batzordeatal Bereziei agizko bilkuretarako deia Idazkari Nagusiak egin ahal izango die, eta berarizkoetarako Aholku-Batzordeko Lehendakariak.

*14garren Atala.*—1. Aholku-Batzorde Osoak bere agizko bilkurak hiru hilabetez behin gutxienez egingo ditu, eta bai Lehendakariak edo Idazkari Nagusiak dei egin diezaionetan ere.

2. Etengabeango Batzordeatala hilean behin bilduko da, gutxienez, eta bai Idazkari Nagusiak dei egin diezaion guztietan ere.

3. Batzordeatal Berezien bilkurak, erapidetzak sortarazteko erabakiak jarri dezan gutxienezko aldizkotasunez egingo dira.

*15garren Atala.*—Euskeraren Aholku-Batzordearen barneihardunari buruz Dekreto honek araupetu gabe utzitako guztietan, 1958garreneko Uztailaren 17ko Arduralaritzabide-Legearen I Idazpuruko II Atalburuan ohartemandakoa izango da erabilgarri.

*16garren Atala.*—Euskeraren Aholku-Batzordea eratzeak eta horren ihardunak ekar ditzan nolanahiko gastuak, Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailaren diruegitamuetan sartuko den horretarako diruizendapenaren pentzutangoak izango dira.

*17garren Atala.*—Euskeraren Aholku-Batzordeko kideek arauz jarri daitezen bidesari eta egunsaritarako eskubidea izango dute.

ERABAKI GEHIGARRIAK

1. Jaurlaritzak, berak geroan sortarazi eta euskeraren eta euskal kulturaren suztapena eta babesa xede izan ditzaten Herri-iraskunde edo Erakunde bakoitzaren salozko batzordekide bana izendatu ahal izango du Aholku-Batzorde Osorako.

2. Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailburuari, Dekreto honetan agindutakoak egiteratzeko behar daitezen manuak egiteko eskua ematen zaio.

3. Euskeraren Aholku-Batzordeak berak onartuko du bere barne-ihardunerako Araudia. Onartu ondoren Lehendakaritzaren Idazkaritza-Sailburuari bidaliko dio, ezagutu dezan.

ALDI BATERAKO ERABAKIA

3 h) Atalak aipatzen dituen Euskeraren Aholku-Batzordeko kideak lehenengo aldiz izendatu eta bi urtera, hoietako erdiak bere tokia utzi egingo dute, zozketa-bidez. Ordutik aurrera, agizkoetarako agindutakoa egingo da.

Une horretan Etengabeango Batzordeataleko izan daitezen kideak ez dira aurreko lerroaldiak dion zozketa horretan sartuko.

AZKEN ERABAKIA

Dekreto hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, mila bederatzirehun eta larogeita bigarreneko Urtarrilak hamaika.

Jaurlaritzako Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Lehendakaritza-Sailburua,
XABIER CAÑO MORENO.

3. El Secretario General formará parte preceptivamente en todas las Comisiones Especiales.

4. Las Comisiones Especiales, podrán ser convocadas con carácter ordinario por el Secretario General y, con carácter extraordinario por el Presidente del Consejo Asesor.

*Artículo 14.*—1. El Pleno del Consejo Asesor, se reunirá al menos una vez al trimestre de forma ordinaria, así como cuando lo convoque su Presidente o el Secretario General.

2. La Comisión Permanente se reunirá una vez al mes, como mínimo y, siempre que la convoque el Secretario General.

3. Las reuniones de las Comisiones Especiales, tendrán la periodicidad mínima que se establezca en el acuerdo de creación de sistemas.

*Artículo 15.*—En todo lo no regulado en el presente Decreto sobre funcionamiento interno del Consejo Asesor del Euskara, será de aplicación lo previsto en el capítulo II del título I de la Ley de Procedimiento Administrativo de 17 de Julio de 1958.

*Artículo 16.*—Los gastos de todo tipo que se originen con motivo de la creación y funcionamiento del Consejo Asesor del Euskara, serán con cargo a la correspondiente partida que se incluirá en los Presupuestos del Departamento de Secretaría de Presidencia.

*Artículo 17.*—Los miembros del Consejo Asesor del Euskara tendrán derecho a gastos de viaje y dietas, en la forma que reglamentariamente se determine.

DISPOSICIONES ADICIONALES

1. El Gobierno, podrá nombrar para el Pleno del Consejo Asesor un vocal, a propuesta de cada una de las Instituciones u Organismos de carácter público que vaya creando y, que tengan por objeto el fomento y la protección del euskara y de la cultura euskaldun.

2. Se autoriza al Consejero Secretario de la Presidencia a dictar las disposiciones necesarias pertinentes para la aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto.

3. El Consejo Asesor del Euskara aprobará su propio Reglamento de régimen interno. Una vez aprobado, lo remitirá para su conocimiento, al Consejero Secretario de la Presidencia.

DISPOSICION TRANSITORIA

A los dos años del nombramiento por vez primera de los miembros del Consejo Asesor del Euskara a que se refiere el artículo 3 h), cesarán mediante sorteo la mitad de los mismos. A partir de esta fecha se estará a lo dispuesto con carácter general.

Quedarán excluidos del sorteo a que se refiere el párrafo anterior, aquellos miembros que sean en ese momento miembros de la Comisión Permanente.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a once de Enero de mil novecientos ochenta y dos.

El Presidente del Gobierno,
CARLOS CARAICOECHEA URRIZA.

El consejero de Presidencia,
JAVIER CAÑO MORENO.